

“Kale Arteen Oraina edo zeregina, krisiaren aroko Antzerki eta Kultur programazioan”

Rafael Salinas

“Festival Al Carrer Viladecans” jaialdiko koordinatzaile-gerentea

Egunon, bon dia, buenos días. Atsegina da berriro ere kale antzerkiko programatzaile, zuzendari eta konpainiekin dagozkigun arazoei buruz eztabaidatzea. Oraingoan, egoerak beste gai bat iradokitzen digu: krisia. Saiatuko naiz krisiaren kausak eta irtenbide posibleak azpimarratzen, neure ikuspegitik, enpresa kudeaketa eta administrazio esperientzia uztartzen duen ikuspegi batetik, alegia.

Egun hauetan, “Economía y Cultura” izeneko batzar bat egiten ari dira Bartzelonan. Aurreko asteazkenean, Bartzelonako alkate Jordi Hereu mintzatu zen Ateneu-n, “Contra la crisis, més Barcelona” izenburuarekin. Antolatzaileek asmatu egin dute ARTEKALE jardunaldietan gai hau proposatuta, eta espero dut nire hitzaldiak ideia interesgarriren bat ematea.

“Economía y Cultura” biltzarraren irekialdian, Joan Karlos Borboikoak hau zioen: “Hain gizarte eragin larriak dituen krisi baten erdian, gure ekonomia aurreratuek bereizteko eta balioa sortzeko aukera aurkitzen dute gure kultur tradizio zabal eta anitzean. Europa osoak daki garrantzizkoa dela beste ahalegin bat egitea kultur industriak pizteko, kultur industriak lagun baitezake ekonomiaren hazkundera berreskuratzen eta hazkunde eta ongizate eredu zaharrak eta berriak finkatzen”.

Ildo programatikoa kulturaren eta sormenaren alde egitea da, enpresa berrikuntzako prozesuetan sakontzea; izan ere, kultura da ekonomia berriaren ardatz nagusietako bat.

Sormena, ezagutza eta berrikuntza.

Krisia areagotzen denean, beharrezkoagoa da kultura, eta beharrezkoagoa da estamentu ofizialek eta enpresa erakundeek hartan arreta gehiago jartzea. Gizarte eredu bat dago, eredu ekonomiko bat, eta horretan, kulturak garrantzi handia du.

Egun hauetan, Leioak kaleko kulturaren aurkia erakusten digu. Ohiko guneetan garatutakoaren antzerki, dantza, musika eta zirku kontzeptua, baina beste ikuspegi batetik.

Zergatik? Kale kontzeptua ikaragarri zabala delako. Bide publikoan gauzatzen den edozein adierazpen, alderdi eta hitzaldi kale artetzat har daiteke, kalekotzat.

Beste aulki eredu baten diseinua egiten duen diseinugileak, iturri apaingarri bati itxura ematen dion eskultoreak, eraikin enblematiko bat diseinatzen duen arkitektoak... Denak pentsarazten digu kalea artelanez beteta dagoela. Askok edo gehiagok zalantzan jarriko dute elementu horiek artea direnik, baliagarriak direnik, iraungo dutenik, baina, azken batean, kaleko hiri kulturaren zati bat dira.

Baina hiri adierazpenari buruz eztabaidatzea ez da jardunaldi hauen helburua.

Egia da kulturako profesionalok gure lekua eskatu dugula gune publikoen diseinuan, arte gisa kultura ere baita. Izan ere, lehenago edo geroago, kalea hartu behar genuen, beharrezkoa den kultur adierazpena egiteko.

Dena den, hirigile, arkitekto, eskultore eta abarrekin lehian aritzea bide arriskutsua da, eta nire ustez, ez du inora eramaten. Arteak kultura sortzen du, zeu zara kultura, kultura dena da, den-denak izan dezake eragina artea kulturatzat har dezagun, baina gutako bakoitzari bere lekua dagokio gizartean, eta leku hori errespetatu eta balioetsi beharra dago.

Hirigileak artea sortzen du kalean, arte horrek luzaro irauteko asmoz. Arkitektoak eraikina diseinatzen du, ezarritako hirigintzaren barruko arte adierazpen gisa. Eskultoreak lekua betetzen du leku hori bereizi eta kohesionatuko duen arte objektu batez.

Kulturako profesionalok kalean jarduten dugunean, denbora tarte labur bat betetzen dugu originaltasunez, sormenez eta harriduraz, baina, behin aktoreek alde eginda, behin ikuskizunaren elementu guztiak kenduta, ez da horretaz ezer ere geratuko, ezta egindako kultur ekintza gertatu delako segurtasuna ere, oroimenerako eta hemeroteketarako argazkiak edo filmazioak izan ezik.

Esparru horretan mugitzen gara kale arteetako profesionalok. Sortzaileek asmatu eta sortu egiten dute, eta erabil daitekeen hiri ingurunean adierazten dute beren lana.

Zein kale arte dagokigu? Zehaztu beharko genuke arte mota hori kalekoak diren eta kalean eta kalerako egiten diren arte eszenikoak direla. Aspaldian, hain anitza eta globala den gizarte honetan, denak du izena eta abizena, baita goitizena ere. Hori dela eta, kaleko kulturako profesionalon zeregina zehaztearen alde nago.

Arte eszenikoen kale jarduera gizartea bera bezain aspaldikoa da. Kaleko arte eszenikoak hain aspaldikoak badira, nekez desagertuko dira gaur egun. Horrek lasaitu egin behar gaitu izenburuan aipatzen den “krisiaren aro” horri dagokionez.

Hain zuzen, krisiaren aroari helduko diogu. Krisia aro batekin lotzea gehiegizkoa da. Hiztegietan, hau aurkituko dugu aroari buruz: Gertakari baten puntu finkoa edo data zehatza, urteak zenbatzen hasteko hartzen dena. Denbora tarte historiko zabala, ezaugarri nagusizat bizimoduetan eta kulturaz jazotako berrikuntza handia duena.

Arte eszenikoak eta krisia ez dira inoiz bereizi; kultura eta krisia; baina, alde batetik, krisia ez da iraganean hain larria izan, eta beste batetik, egungo krisiak ez du “denbora tarte historiko zabala” iraungo. Egia da krisia dagoela, baina, bestalde, egia da krisia eragin txikiagoa izaten ari dela kultur arloan beste sektore batzuetan baino; izan ere, kultur enpresak sendoak dira, eta gizarteak, oro har, lehen mailako premiaz hartzen du kultura.

Viladecans Qualitat kultur enpresa txikiaren izenean etorri naiz. Aurtengo lehen bost hiletan, gure kultur programazioko ekintzetara etorri den publikoa %10 handiagoa izan da iazko tarte berekoa baino. Kontratazioan egindako inbertsioa %15 handitu da, eta diru sarrerak, berriz, %20. Hori enpresa txiki batekin gertatu da, aldiriko hiri batean, langabezia ehuneko handia duen hiri batean.

Historikoki, pobrezia kulturarekin lotu dugu, krisia antzerki desfektazioarekin, antzerkia, musika, dantza eta zirkua buhameriarekin, “berdin dio, gustuko dudana egiten dut, horixe nahi dut” sentsazioarekin. Hori okerra da. Geroago esango dugu kulturaren BPG handiagoa dela zenbait industria sektorerena baino, beti enplegu eta negozio maila handikotzat hartutako zenbait sektorerena baino. Kultura eta krisia lotu izan dira. Batzuetan, testurik ez zegoelako, beste batzuetan aktorerik ez zegoelako, beste batzuetan ikuslerik ez zegoelako,

beste batzuetan dirurik ez zegoelako. Edonola ere, biktimismoa sektoreko betiko elementua da. Eta biktimismo horrek ez dio lanbideari lagundu, negarrez ez baita aurrera egiten.

Gaur egun, bankuek kredituak ematen dizkiete enpresa proiektu koherenteei. Eta bakoitzak bere lurraldean gertatzen denari buruzko gogoeta egin dezan. Adibide gisa esango dut, Bartzelonan, antzerki enpresa batek erortzeko zorian zegoen antzoki bat, Goya antzokia, zaharberritu duela, eta enpresa horrek gutxienez bi bankuren kredituak lortu zituela horretarako. Enplegua eta aberastasuna sortzen dituen enpresa proiektu bat da.

Egia da kultura eta, horrenbestez, arte eszenikoak ekonomikoki errentagarriak direla.

Kultura Ministerioak 2000-2004 bosturtekoari buruz emandako datuek adierazten dutenaren arabera, kultur jarduerak eta jabetza intelektualak 38 mila milioi euro baino gehiago sortu zituzten denbora aldi hartan; hain zuzen, PBGren %3,8. Hau da, nekazaritzak, abeltzaintzak eta energia sektoreak ekonomia nazionalean sortzen dutena baino gehiago.

Gainera, bosturteko horretan, Espainiako ekonomiaren hazkundera txikiagoa izan da arte eszenikoena baino; hurrenez hurren, %7,4 eta %7,7.

Datu estatistiko horiek ezeztatzen dute arte eszenikoak urritasun egoeran daudenik. Gure sektoreak aberastasuna sortzen du.

Izan ere, asko hobetu da, enpresak sortu baitira, enpresa proiektuak martxan jarri baitira.

Konpainiak, aktoreak eta sortzaileak ohartu dira etengabeko arranguren bidez ez dutela aurrera egiten. Hortaz, egiteari ekin diote. Badut, erabiltzen dut, arriskatzen naiz, inbertitzen dut, antolatzen naiz, eskaintzen dut, eta merkatuak hainbat aukera ematen dizkit.

Izatea, erabiltzea, arriskatzea, inbertitzea, antolatzea eta abar arte eszenikoen gehigarriak dira: talentua, lana, kapitala, kredituak, baliabideak... beste edozein enpresatan bezala.

Datuek sektorearen egoera argitzen dute.

Sektoreko finantzazio iturriak ez dira esparru batekoak soilik. Esparru asko landu daitezke.

Zenbait finantzazio iturriri buruzko xehetasunak emango ditut:

- Administrazioak, beren laguntza, diru laguntza eta hitzarmenekin. Ezbairik gabe, laguntzak hitzarmenen bidez arautu behar dira, beharrezkoa baita lana planifikatzea. Diru laguntzak jarraipenik izango ez duen zerbait zehatza egiteko dira. Diru publikoa jarraipen

proiektuak egiteko erabili behar dira, enpresa ehuna sortzeko. Ustiatu, errespetatu eta sustatu beharreko atala da.

- Babesleak. Publizitate bide guzti-guztiek balio dute ekoizpena sendotzeko. Delako produktuaren irudia eszenografian egotea, lekualdaketetan laguntzea, birako egonaldietan laguntzea, etab.
- Koprodukzioak. Arriskua beste enpresa batzuekin elkarbanatzea, balioak trukatzuz: balio ekonomikoa (inbertsioa kulturaren burtsan), gizarte balioa, publizitate balioa.
- Mezenasgoa. Beharrezkoa da mezenasgoaren legea garatzea, gizartea eta enpresak kultur garapenean inplika daitezen laguntzeko.
- Baliabideak beraiek. Kultur proiektuak enpresa gisa planifikatu behar direla esan dut. Enpresa batek, kapitalik gabe, dirurik gabe, ezin dio proiektu bati ekin, izugarri mugatzen baitira aukerak.
- Ikusleak, aretoen kasuan. Jakina, kale ikuskizunen kasuan ez da dirurik biltzen.

Orain arte, krisia, XXI. mendearen hasierako krisialdia, aipatu baino ez dut egin.

Denok dugu gure ikuspegia krisiari buruz, denok asmatzen dugu krisiari buruzko azterketaren atalen batean, baina ez dugu egungo krisiaren alderdi guztiak menderatzen.

Argi dago, sektoreko enpresei dagokienez, gaur egungo krisiak ekoizpenen finantzazioan duela eraginik handiena. Banku erakundeek izugarri gutxitu ematen dituzten kredituak, aurretik inbertsio kutsatu gehiegitan parte hartu dutelako.

Administrazioen aurrekontu posibilitateak asko gutxitu dira, haien finantzazio iturria bat-batean txikitu direla. Oinarrian, betiko finantzazio iturri berberak dituzte administrazioek: obra baimenak.

Banku erakundeek ez dute ezer ere finantzatzen, ez baitute uste dirua itzuliko dietenik (gaur egun, berankortasuna %5etik gorakoa da, datu ofizialen arabera, eta oraindik, krisiaren garairik latzena iristeke dago). Banku erakundeek eraikuntzan eta familia kontsumoan bereziki arrisku txikiagoa hartu izan balute, kreditua egongo litzateke, garestiagoa edo merkeagoa, baina kreditu lerroa izango genuke bermatua. Orain, bankuek ordainarazten

dizkigute beren zuzendariek egindako gehiegikeriak, artesarien banaketa egitean nahiz produktu kutsatuen kudeaketan sartzean egindakoak.

Gizartea bere posibilitateen gaineratik bizi izan da, baita kaleko antzerki konpainiak ere. Ez dugu dirurik gorde une zailtarako, baina hutsegite hori orokorra izan da; ez soilik gure sektorearena.

Egoera horretan, erru guztiak egozten dizkiegu bankuei, aurrezki kutxei, administrazioei, eraikuntzari, kontsumoari.

Ez dut deabruaren abokatuarena egingo, baina antzerki, musika eta dantza sektorea oso eroso bizi izan da, fidagarritasun txikiko kredituak jasotzen ziren bitartean, diru laguntzak justifikatuta edo hainbeste justifikatu gabe iristen ziren bitartean, hirigintza guneen inaugurazioak egiteko benetako baliotik gorako kontratuak lortzen ziren bitartean, eta jaialdiak, jaiak eta ikuskizunak leporaino betetzen ziren bitartean.

Denbora horretan, enpresa akatsak egin dira, estrategia akatsak. Kredituak eskatzeko, ez zitzaion konpainiaren plan estrategiko bati jarraitzen. Kredituen amortizazioa ez zegoen bermatuta; izan ere, ikuskizuna sortu eta gero, proiektuak ez zuen jarraipenik, konpainiak – hau da, enpresak– ez zuen jarraitzeko proiekturik. Bide batek huts egiten bazigun, beste batera jotzeko aukera genuen. Egun hauetan, sektoreko lagunekin izan naiz, eta baten batek esaten zidan orain, formatu handiko ikuskizunak sortzeko zailtasunak daudenez, jatorrizko ikuskizunetara itzultzea erabaki dugula, formatu txikiko ikuskizunetara itzultzea eta azken urte hauetako baliabideak kudeatzea. Beste batzuek sektore ziurragoetan (tailerrak, eskola antzerkia, etab.) aritzea erabaki dute, inoiz ere ekoizpen handiak egiteko asmoa alde batera utzi gabe.

Noski, krisia ez da konpainien edo aktoreen jardueraren ondorio. Hala ere, badago sektoreko krisian gaur egungo krisi orokorrarekin inongo zerikusirik ez duen kausa bat. Talentu krisia da.

Duela hogeit hamar urte hasi nintzen Frantziako konpainien kale ekoizpenei arreta handiz erreparatzen. 2000. urtearen hasieratik, asko txikitu da Espainiako eta Frantziako kale ekoizpenen sormena. Eta hain zuzen ere, sormenik ezak –eta horrekin ez dut esan nahi ikuskizunik derrigorrez estreinatu behar denik– itzulerarik gabeko bide batera eraman gaitu. Egoera hori gainditzea dugu, jarraian azalduko ditudan zenbait neurri esker.

Zein izan dira kausak? Nire iritziz, kausa bat baino gehiago daude.

Bat, **ideiarik eza**, sektorearen izateko arrazoia sustatuko zuten sortzaileen gabezia. Egia da, sormen handiko urte askoren ondoren, zaila dela sormen mailari eustea, baina, horren jakinaren gainean ez geundenez, antolamendu egiturak mantendu eta handitu egin dira. Gainera, oso handia izan da aurrekontu publikoekiko mendekotasuna, eta ez da finantzazio iturri alternatiborik bilatu.

Bi, kale antzerkiaren sektoreko **langile kopurua** handitu egiten zen, espezializazio berezirik eskatu gabe. 1980ko hamarkadan, hogei urterekin, erraza zen Europan zehar ibiltzea, ikuskizunetarako trikimakoak, mazoak edo bolak erabiliz. Denborak aurrera egiten du, ezinbestean, nahiz eta guk nahi ez, eta beraz, antzezteko beste modu batzuk behar ditugu. Trabatatu egiten gara, buruz eta fisikoki. Gizarteak aurrera egiten du, eta ezin gara izan herrestan doan txalupa, ezta jazoerak geldirik ikusten dituen zubia ere. Erreakzionatu egin behar dugu.

Hiru, **kudeaketa berrikuntzarik eza**. Kale antzerkia areto antzerkia bezain konplexua da. Dena den, zaila da jakitea beste sormen modu batzuetarantz nola abiatu. Oso kale sortzaile gutxi asmatu dute beste modalitate batzuetara aldatzen. Esperientzia gutxi dira. Horietatik, Comediants konpainiarena (Joan Font) eta La Fura dels Baus konpainiarena (kide guztiak) dira ezagunenak. Eta orain, Xarxa Teatreko Manolo Vilanovaren eta Leandro Escamillaren esperientzia berria ere aipa daiteke: opera baten eszena zuzendaritzaz arduratuko dira; hain zuzen, Meridako Erromatar Antzokian estreinatuko den opera batena.

Kale antzerkiaren etorkizuna optimista da; izan ere, ez diogu inoiz utziko kale ikuskizunak Hegoaldeko Europako herrialdeen berezko kultur adierazpen gisa sustatzeari.

Krisi prozesu orotan bezala, gaur egungo egoerak hautaketa bat eragingo du sektorean. Alde batetik, kale antzerkia egiteko oso *sui generis* modu batzuk sortuko dira (oso produktu txarrak izango direla ez esateagatik). Baina, beste batetik, oraingo hausnarketaren ondorio lan berriak ere aurkituko ditugu.

Konpainiek beren baliabideekiko koherentea den enpresa antolamendua egiten badute, sormena barrutik eta/edo kanpo aginduen bidez antolatzen badute, kideen prestakuntza teknikoari garrantzia ematen badiote, finantzazio eremua zabaltzen badute eta eskaintza dibertsifikatzen badute, beren etorkizunerako aukerak indartuko dituzte.

Krisi garai hauetan, munduko ekonomiako guru askok egungo zailtasunak gainditzeko errezetak ematen dituzte. Batzuek eredu ekonomikoaren amaiera aldarrikatzen dute; beste batzuek eredu baliagarria dela azaltzen dute, baina zuzenketak egin behar direla. Nik neuk uste dut eredu asmatuta dagoela, aukerak aprobetxatu behar direla. Adreiluaren ekonomiaren orde ezagutzaren ekonomia sustatzea da gobernarien ideala. Dena den, lehen hori ez da desagertuko, eta bigarrena ez da lurralde guztietan ezarriko. Ez dakigu egoera noiz eta nola amaituko de, baina beharrezkoa da hartara eraman gaituzten akatsak zuzentzea.

Kasu gehienetan, irtenbideak ez daude gure eskura, goi mailako ekonomiakoak baitira, makroekonomiakoak.

Gobernarietara utzi behar diegu gure etorkizuna konpontzen, nahiz eta, inork ez du zalantzan jarriko, egoera haien erruz egin duen okerrera, haien diruzalekeriaz, haien gehiegikeriaz, haien arteko liskarrez eta haien gezurrez.

Bien bitartean, egunen egunera egin behar dugu lan, gure zailtasunen irtenbidea aurkitzeko.

Duela gutxi, Juan Jose Pintado CEFeko (Centro de Estudios Financieros – Finantza Ikerketen Zentroa) finantza irakaslearen dekalogo bat irakurri dut: “Enpresa batek krisi garaian egin behar ez dituen hamar gauzak”.

Pintado irakasleak hau dio: *“Egoera eta itxaropen ekonomikoek izugarri eta oso azkar egin dute okerrera. Une hauetan, ugariak dira enpresentzako mehatxuak eta erronkak, eta azpimarratu behar dugu alderdirik larrienak likideziarekin eta finantza beharrekin lotuta daudela”*.

Horrenbestez, krisi garaian, enpresa batek, administrazioan, kooperatiba batean edo sozietate batean lan egiten bada ere, ez dute honako hau egin behar:

1. **Krisiaren eragina ukatu.** Itxuraz oraindik krisiaren eraginik izan ez duten enpresen kasuan ere, ekonomiaren ontzi komunikatuen ondorioz, azkenean, hedatu egingo da krisiaren eragina. Hortaz, krisiak eragina izango du Espainiako ia enpresa guztietan, nahiz eta neurri batean soilik.

2. **Zuhurtzia muturreraino ez eraman.** Diruzaintza epe laburrean eta epe ertainean aurreikustea oso garrantzitsua da, enpresek krisi egoera honetan funtzionatzen jarraituko badute. Enpresez diru sarrerak eta gastuak zaindu behar dituzte. Garrantzitsua da merkatuaren eta salmenten bilakaerari arreta handiz erreparatzea.
3. **Komunikazioa ez zaindu.** Krisi garaian, bereziki beharrezkoa da enpresaren eta ingurunearen (bezeroak, hornitzaileak, Administrazioa, langileak...) arteko komunikazioak behar bezala kudeatzea. Erabateko isiltasuna gehiegizko informazioa bezain kaltegarria izan daiteke. Barne zein kanpo mezuak administratu behar dira, erakundeari dagozkion gertaerei eta erakundea gertaera horiekiko hartzen ari den neurriei buruzko informazioa emateko. Horrela soilik lortuko dugu zurrumurruen eta informazio zehaztugabeen eragin kaltegarriak deuseztatzea.
4. **Egoera bakoitzerako kostuak eta diru sarrerak ez aztertu.** Garrantzitsua da arriskurik handieneko eta arriskurik txikieneko egoerak baloratzea, egoera horietako bakoitzean zer egin aurreikusteko. Zenbait ekintza kategoria diseinatu behar dira, baita helburuak berriro zehaztu ere, krisiak izan ditzakeen ondorio txarrak ahalik eta gutxien izate aldera.
5. **Aurrekontuak eta zorpetzea alde batera utzi.** Enpresa bakoitzak, duen malgutasunaren arabera, aurreikusitako emaitza kontuetako gastuak doitu behar ditu, eta zorrotz betetzea lortu. Galerak izateak enpresa ixteko arriskua handitu egiten da. Beharrezkoa da enpresaren finantza oreka lortzea. Horretarako, finantzazioa edo birfinantziazioa bilatu behar da. Kapital zirkulatzailerak ("egunetik egunerakoa") finantzatzea ezinbestekoa da, batez ere ETEentzat.

Orain arte, ohikoa zen urteko aurreikuspen ekonomikoa egitea, urteko aurrekontua egitea. Hemendik aurrera, berriz, litekeena da hileko edo asteko plan ekonomikoak egin behar izatea. Plan horietan, hau adierazi beharko da: bezeroen eskaerak, bezero bakoitzaren eta haren negozioaren kaudimena, enpresaren beraren diruzaintza eta banku erakundeen erreakzioa, eta aukeratutako hornitzailea eta materiala.
6. **Erabakien eskuordetzea ez zaindu.** Gaur egungo ziurgabetasun orokorreko egoeran, aurretiaz eskuordetutako edo automatizatutako erabaki asko berriro aztertu eta, beharbada, zentralizatu beharko dira.

Orain arte, ohikoa zen analisi sistemak eta informazio taldeak izatea. Egoera berri honetan, beharrezkoak izango dira emaitzei begirako taldeak eta, taldeak kohesionatze aldera, gidaritza gaitasuneko pertsonak.

7. **Uneko proiektuekin eta inbertsioekin “besterik gabe” jarraitu.** Beharrezkoa da martxan edo aurreikusita dauden proiektuak berriro aztertzea eta epe laburrean emaitzak edo fakturazioa hobetuko ez dituztenak gordetzea. Bestelako egoera batean gaudenez, krisia hasi aurretik egindako kalkuluak baliagarriak diren ala ez aztertu behar dira.
8. **Merkatuan gerta daitezkeen aldaketak alde batera utzi.** Egungo egoeran itxaropenek okerrera egin dutela eta, oso bizkor eta etengabe aldatzen dira merkatuan esku hartzen duten eragileen portaera arauak. Horren ondorioz, etengabe aztertu beharko dira salmentetan gertatzen diren aldaketak eta enpresa lehiakideen erreakzioak. Zenbat eta azkarragoa izan enpresak merkaturako aldaketekiko duen erantzuna, orduan eta hobeto planifikatuko ditu negozioa bere onera eramango duten estrategiak.
9. **Gehiegizko erreakzioak izan.** Krisia egoera delikatu da, eta beraz, ez da komeni erabakiak presaz hartzea. Zuhurtasuna nagusitu behar da. Pertsonal murrizketa handiak egitea kontratazioak bereizi gabe egiten hastea bezain txarra da.
10. **Krisia gainditu osteko egoerak ez aurreikusi.** Krisia amaitu egingo da eta hori izan behar da kontuan. Enpresariak imajinatu behar dute nola gera daitekeen sektorea, eta krisia amaitzen denerako, merkatu eta produktu berriak bilatu behar dituzten aztertu.

Hamar manamenduak bitan laburbil daitezke. Hona hemen: unean unekoa arreta handiz zainduko duzu eta krisiaren ondorengo garairako prestatuko zara, ez baita amaigabea izango.

Krisian indartsuak izatea lortzen badugu, indartsuak izango gara krisia amaitzean. Egungoaren aurkako egoerarako prest egon behar dugu. Bakoitzak bere modura erantzuten du zailtasunak daudenean, baina denok egon behar dugu orainari eta geroari aurre egiteko.

Eta ikasi behar dugu oparoaldian ondo egin ez ditugun gauza guztietatik (enpresa gehiegi handitzea, negozioa ez dibertsifikatzea, prestakuntza alde batera egitea, etab.).

Eskerrik asko zuen arretagatik.

RAFAEL SALINAS SERRANO (1952)

“Festival Al Carrer Viladecans” jaialdiko koordinatzaile-gerentea

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. SPM Viladecans Qualitat, SL udal enpresako gerentea; enpresa horren helburua da, era guztietako kirol eta kultur ekipamenduak antolatu, sustatu, kudeatu, administratu, ustiatu eta hobetzea, baita kirol eta kultur jarduera ere. Festival Internacional de Teatre i Animació de Viladecans AL CARRER izenekoaren zuzendari eta sortzailea da; gaur egun jaialdi horren koordinatzaile-gerentea da. Hainbat kongresu eta mintegitan hizlaria izan da, bereziki, antzerki eta kale animazioko aditu gisa.